

Goienkaria

Eguaztena / 2009ko abenduaren 23a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARRASATE

URTEARI BEGIRATUA

2009



ARAMAIO > 12
ARETXABAleta > 15
ESKORIATZA > 23
LEINTZ GATZAGA > 31



ARGAZKIAK: UBANE MADERA / XABI URTZELAI / JON BEREZIBAR / ARANTZAZU EZKIBEL / JOSETXO ARANTZABAL



**TOURLINE®
EXPRESS**

**TOURLINE EXPRESS
ARETXABAleta**

943 71 29 74

Murubide enparantza 3
20550 Aretxabaleta

www.tourlineexpress.com

2012aretxabaleta@tourlineexpress.com



URTARRILA



"Herri aldizkaria doan izatea guztiengana iristeko aukera ematea da"

Joxemari Muxika > Euskaltzalea >
2009.01.12



"Badiote 1845ean Isabel II.a eta ama Galarrako koban egon zirela"

Inazio Zuazubizkar >
Meatzerrekako alkatea > 2009.01.19



XABIER URTZELAI

Athleticeko harrobian, 10 urte zituztenetik

Gorka Eraña (erdilaria), Aitor Fernandez (atezaina) eta Iker Uribarren (erdilaria) 10 urterekin joan ziren Athleticeko harrobira, Lezamara. Talde zuri-gorriak Derion duen egoitzan bizi dira. Urteotan kategoriaz kategoria igotzen joan dira: Aitor Fernandez dagoeneko lehenengo taldearekin entrenatzen dabil, nahiz eta Baskonian jokatzen duen, eta Gorka Eraña eta Iker Uribarren gazte mailako Athletic taldean dabilta, ohorezko nazional mailan. Azken bi horiei liga amaietan esango diente goiko talderen batera igoko diren ala beste talderen batera utzita joango diren.

hileko esaldia

"Gaixoen beharretara egokitutako bako lekua da ospitale Zaharra"

Jose Luis Angulo > Ospitaleko gerentea > 2009.01.23

hileko datua

4

Lau milioi euro. Hori da Estatu Fondotik Arrasaterako bideratu zuten kopurua; Aldain parke berria egiteko, Santa Marina eraberritzeko eta Erguingo eskailerak berritzeko erabiliko zuten.

izen propioak



Iñigo Arregi
ARTISTA

Garaia berrikuntza gunean, LKSek duen enpresaren aurreko aldean ipini zuten artista arrasatearraren eskultura berria.



Maria Angeles Muruamendiaratz
GOZOGINA

Muruamendiaraz gozo-denda ezaguna, 69 urteren ostean ugazaba aldatu, eta Ogiberriz izatera pasa zen.



José Ramón Lopez de Munain
FAGOR

Fagor Etxetresnetako zuzendari izendatu zuten; urtarrilean ekin zion lanari. 1983an sartu zen kooperatiban.

AURKIBIDEA

Urtarrila > 02
Otsaila > 03
Martxo > 04
Apirila > 05
Maiatza > 06
Ekaina > 06

Uztaila > 07
Abuztua > 07
Iraila > 08
Urria > 10
Azaroa > 11
Abendua > 11

ARAMAIO > 12
ARETXABAleta > 15
ESKORIATZA > 23
GATZAGA > 31

Goienkaria

Argiratzailea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Erredakzioa** Ubane Madera, Mirari Altube, Arribito Barroso, Mirian Biteri, Jokin Bereziartua, Jasone Zubala, **Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Aintzane Muruamendiaraz, Ziorita Martín, Ixtxo Bereziar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate



OJD erakundeak
ikuskatutako asteakaria

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33
Tel.: 943 25 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxatila
Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Harpidezta Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 9.850 ale.

LAGUNTAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Aramaioko Udala
Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutako aldizkaria

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.

Zure leihoak aldatu eta zure ametsak gauzatu EPEKA erosoa ordainduz

ION LEIHOAK EXPOSICIÓN Y VENTA

ARAMAIO GARAIA ARRASATE URIBE AIZKOA

Telleria 4 - 11. Pab • Aramaioko bidea • Tel.: 943 79 11 35 • Arrasate
Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com

ION
leihoak
ZORUAK
LEIHOAK
ATEAK
HORMA ARMARIAK

ESKAINTZA: DIPROCA RENOVE PLANA



6300 Modeloa Haritezko egurra
6 ate (2 ate beiradun eta 4 ate itsu)
Marco berria
Matelux kristalak
Kromozko Rosetak
Eskulana

Orain 1850€
BEZ BARNE



12 HILABETETAN ORDAINTZEKO AURKERA, INTERES BARIK

OTSAILA



"Musakolan Haurreskola ipintzeko lehen pausotan gaude"

Oihana Aranburu
> 'Goiena Magazinea' 2009.02.16



"Herriak bizitasuna galtzeko pozesa geldiarazi nahi dugu"

Arantxa Arantzabal
> 'Arrasate Bizirik' > 2009.02.13



JASONE ZABALA

LKSren egoitza nagusi berria, inauguratuta

Garaia Berrikuntza Gunean inauguratu zuen LKS enpresak egoitza nagusia. 250 profesionalendako instalazioekin, han ipini dituzte bulego zentralak, Mondragon Ingeniaritz eta zerbitzuen egoitza eta baita ere talde bereko Abantail, GSER eta ISEA enpresak. Jose Mari Aldekoak, Mondragon Taldeko presidenteak, ekitaldian esan zuen "talde eta herri moduan" euren erronka dela "industria esparrua birmoldatu eta gartzea, Europa mailan lehiakorragoak izateko". Egoitza nagusiak 3.600 metro koadroko azalera dauka eta LKS berak diseinatu du.

hileko esaldia

"Norbere bizitza eroateko gauza ez den jendearen tutoretza hartzen dugu"

Jose Luis de la Cuesta >
Hurkoia > 2006.01.23

1

Tona bat. Hori da Cespakoek Aratuste jaien ostean jasotakoa. Herritarren artean zabor kopuruak ere zeresana sortu zuen; "ibili ere ezin" zela zioten askok, eta jai batzordeak berak ere salatu egin zuen.

Gelmako biribilgunea, prest

Gipuzkoa etorbidea, Zabalgunea eta Santa Marina lotzen dituen biribilgunea amaitu zuten. 2009.02.28

Abaroako taberna itxi egin zuten

Lanengatik itxi eta harrezker, egoitza berria zabaldu arte erretiratuek ez dute tabernarik. 2009.02.28

izen propioak



Amaia Arrieta
PRESO OHIA



Agustin
Markaide
MONDRAGON TALDEA



Emilia
Lizarralde
ERRETIRATUA

Sei urteko kartzela zigorra beteta, askatu egin zuten. Jarrai-Haika-Segi auziagatik Auzitegi Nazionalaren aginduz sartu zuten kartzelan Arrieta.

Eroskiko zuzendari nagusiak, Mondragon Taldeko Kongresuko eta Batzorde Iraunkorreko presidente kargua hartuko zuela jakin zen.

100 urte bete zituen Emilia Lizarraldekin eta omenaldia egin zioten herrian. Oñatin jaio zen baina aspalditik bizi da Arrasaten.


JUBAR®
ATEAK, S.L.

DO certificación
E.R. 02/518
ISO 9001/00
ACREDITADO POR ENAC

Urte berri on!




GARAJEKO
ATEEN
AUTOMATIZAZIOA



Oinezkoentzako
kaleak babesteko

- Garajeko ateak
- Segurtasuneko pertsianak
- Automatismoak
- Konponketak
- Urrutiko aginte tresna homologatuak
- Oinezkoen ateentzakosistema automatikoak



MARTXOA



"Mojategin entrenatzeak markak lortzen lagundu digu"

Oihane Urtzelai > Atleta
2009.03.09



"Azken 30 urteotan okelaren kontsumoa hirukoiztu egin da"

Jesus Romero > Sukaldaritza energetikoan aditua > 2009.03.09

Gelma, Uribarri eta La Caixako etxeen zozketak

Gelmaren orubean (131) eta Uribarri auzoan (44) eraikitako babes ofizialeko 175 etxebizitzaz zozketatu zituzten martxoaren 4an, 847 eskatzaileren artean. Une hunkigarria bizi izan zituzten askok Uarkape frontoian. Zozketa egin eta hil berean hasi ziren egokitzen lurzorua berria etxebizitza gehiago (356 bat) eraikitzea, Zerrajera.

Bestalde, La Caixaren beste 148 etxebizitza ere zozketatu zituzten. Kasu horretan, martxoaren 26an egin zuten zozketa, herritarren presentzia barik. La Caixako etxebizitzak dira errentan hartzeko eraikitakoak, babestutako errentan. Uztailen entregatuko zituztela jakinarazi zuten.



GOIENKARIA

Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.

Otalora lizenziatura 10 Tel.: 943 77 20 04
ARRASATE

Uarkape jatetxea

2010a ere oparoa izan dadila!

HORTZ KLINIKA
UARKAPE

Uarkape 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 87 90 - 943 79 10 85

hileko esaldia

"Igartzen da etxeak ez direla saltzen, eta askok Bizigune aukeratu du merkaturatzeko"

Nerea Lazpiur > Biziguneren arduraduna > 2009.03.23

hileko datua

33

Otsailean mobilizazioak eginen hasi ostean, Iturbide egoitzan azpikontratatuta zeuden 33 langilek mugagabeko grebari ekin zioten martxoaren 24an. Agintari eta herritarren artean zeresan handia piztu zuen.



Ferixalekutik Altamirarako igogailua

Martxoan hasi zituzten Ferixaleku eta Altamira lotuko dituen igogailu publikoaren lanak.



Langabeziak gora; bereziki, Arrasaten

Urtarrilean langabezia igotzen hasi zen, eta martxoan tingo joan zen gorako bidean.

izen propioak



Jon Stegmeier

KAZETARIA



Patxi Lopez

LEHENDAKARIA



Jose Riviere

ABAROAKO PRESIDENTEA

Euskal sozialisten buruak esan zuen, Isaías Carrascoren hilketaren urturrenean, "terrorismoari apologia egiteko espacio publikorik ez zutela onartuko".

Batzar orokorean aukeratu zuten Jose Riviere Abaroa egoitzako presidente; ordura arte egoitzako diruzain eta idazkaria izan zen.

Odontologia orokorra
Endodontzia
Inplantologia
Protesiak

APIRILA



"Alderdi abertzaleok gai izan behar dugu ilusioz aukera bat garatzeko"

Pello Urizar > EAKo idazkari nagusia > 2009.04.06



"Txertoek alergiak kontrola ditzakete, baina ezin dira sendatu"

Saioa Esnal > Alergologoa > 2009.04.24



Untzak kontratua hautsi zuen Udalarekin

Untza enpresako langile azpikontratatuenei auziak oihartzun handia izan zuen Arrasaten. Hala, apirileko lehen astean Iturbide egoitzan erizain laguntzaile zerbitzua ematen zuen Untza enpresak eten egin zuen Udalarekin zuen kontratua. Enpresako hitzetan, mugagabeko grebanen ondorioz sortu zen "egoera jasanezina" zen "halako enpresa txiki batendako". Era berean, adierazi zuten Udalak protestan zeuden langileei egin zien proposamena "sektoreak eskain zezakeen hitzarmenaren oso gainetik" zegoela.

GOIENKARIA

hileko esaldia

"Quiroga, PPko beste kide batzuk bezala, euskararen defendatzaila sutsua da"

Itziar Lamarain > PPko zinegotzia > 2009.04.27

hileko datua

40

Apirlaren 3an aurkeztu zuen Arrasate Musikalek bere orkestra sinfonikoa, Udaberriko Musikaldiaren barruan. 40 musikarik hartzen dute parte eta kide gehienak arra-satearrak dira.

Pintxoa eta nazioarteko ardo ondua

Arrasate Bizirik-ek eta Domecq Bodegasen akordioa apirilean: pintxoa, eta ardo ondua euro baten truke.

Litxarrerien kontsumoa %600eko igoera

Azken urteotan litxarrerien kontsumoa izugarri igo da, orain egunero jaten ditugu-eta.

> KIROLA

Mondraren zuzendaritzarik, berezko erreleburik gabe

Mondrako zuzendaritzan lau urte lanean egin eta gero, martxoan dimisioa aurkeztu zuen Jose Luis Azkarateren taldeak -hauteskundeak deitzeko beharrezko da-. Hala ere, emandako operako, hots, apirilaren 14rako inork ez zuen hautagaitzarik aurkeztu. Hau da, Mondrak berezko erreleburik ez zuela argi geratu zen.

Gauzak horrela, zuzendaritzarik guraso batzuekin jarri zen harremanetan, taldearen ardurra har dezaten. Azkenean, maiztzean, Patxi de Andres aukeratu zuten presidente.

> LIBURUAREN EGUNA
Apirl osora begira hamaika ekitaldi antolatu zituzten

Apirlaren 23an ospatzen den Nazioarteko Liburuaren Eguna dela-eta Arrasateko Udal Bibliotekak hainbat ekitaldi antolatu zituen hilabete osorako. Ekitaldi aipagarrienetariko *Biblioteca en guerra* erakusketa eta haren gaineko hitzaldiak izan ziren. Horien artean Guadalajarako bibliotekako zuzendari Blanca Calvok egin zuen *Pagar por leer en la biblioteca pública* hitzaldia izan zen.

Bestalde, literatura solasaldiak eta ipuin kontalariak ere antolatu zituzten liburuaren egunaren harira.

ANE LASAGABASTER HORTZ KLINIKA



Urte berri on!

- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta implantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuarte D • Tel.: 943 79 13 68
20500 Arrasate


Goizez eta arratsaldez irekita

MAI. | EKAINA



"Ez ditugu politika frentistak egingo, gizarte osoaren aldekoak baizik"

Blanca Roncal > Parlamentuko presidente ordea > 2009.05.04



"Gehiengoak onartuko duen proposamen politikoa behar da"

Xabier Zubizarreta > Ezker Abertzaleko kidea > 2009.05.11

ERLIJIOA

On Jose Maria santu egiteko bidea

Jose Maria Arizmendiarieta, Arrasateko kooperatiben mugimendua sortu zuen apaiza santu egiteko hemengo fasea itxi zuten. Batutako informazioa Errromara bidali zuten eta harrezkero Santuen Gairako Kongregazioaren eskuetan dago Arizmendiarieta santu bilakatu edo ez erabakitza. 1999an pentsatu zuten Gorroñogoitia, Ormaetxea eta Larrañagak Arizmendiarietaren beatifikazioa bultzatzeara. Elizako adituek oinarri sendoak zituela esan eta 2005ean hasi zuten prozesua.



Alfonso Gorroñogoitia eta Jose Maria Ormaetxea, Vatikanoko plazan.

GOIENKARIA

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK



**arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak**



**ZORIONAK
ETA URTE BERRI ON!!!**

altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

erakusketa eta taiterra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

GIZARTE ONGIZATEA > LARRIALDIKO ETXEBIZITZA

Larrialdian daudenendako aldi baterako etxebizitzan

Larrialdi egoeran dauden bizi-lagunei aldi baterako etxebizitzan ateratzea agintzen duen epaia izatea; epai irmoz agindutako kaleratzek; bizitokia hondoa jotzeko zorian dagoenean eta bestelako gizarteratze edo harre-ra zerbitzuren batean izan ondo-ren, bizitza independentea egiteko egokitze epea behar izatea.

Honako baldintzetan daudenek eska dezakete zerbitzua: kalean bizitza; pertsonen segur-tasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duten familia

gatazka gertatzea; etxebizitzatik berehalera zerbitzua onartu zuen Arrasateko Udalak.

> KULTURA

Mariasun Pagoaga, film bateko protagonistetako bat

Mariasun Pagoaga arrasatearra aukeratu zuten film bateko protagonistetako bat izateko: *Axun eta Maite*. Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño zuzendarien bi emakume adinduren arteko maitasun harremana landu zuten filmean, eta hain zuzen ere, Pagoagak irudikatu zuen emakumeotako bat.

Zizurkilen, Asteasun eta besteak beste, Donostiako Santa Klara uhartean egin zituzten grabazioak. Zuzendarien helburua zen filma Donostiako Zinemaldian estreinatzea, baina bukatu ezin, eta iragarri dute 2010eko udaberrian estreinatuko dutela.

UZT. | ABUZTUA



"Emakumezkoetan erakutsi dugu ikuskizuna eman dezakegula"

Amaia Doyage > Arraunlaria
2009.07.20



"Arrasaten ez dago etorkinendako Ekin-en moduko zerbitzurik"

Leire Aperribai > Ekin Emakumeak elkarteko presidentea > 2009.07.10



GOIENKARIA

Akabo Biteri plazaren parte-hartze ekimena

Udalak jaso zuen Biteri plazaren inguruari herritarrek duten iritzia. Siadeco ahokularitza enpresak lagunduta, bilera bi egin ziren udaletxeko osoko bilkuren aretoan gunearen erabilera nola hobetu daitekeen pentsatzeko. Amaieran, jasotako ekarpenen artean Udalak bere jarrera azaldu zuen. Ondorio nagusia, baina, plaza aldatzeko diririk ez dagoela izan zen.

hileko esaldia

"Lezetxiki 2ko tresnak Kantauri aldean datatutako zaharrenak izango dira"

Haritz Villaluenga >
Arkeologoa > 2009.07.23

hileko datua

306

Udalekuek gero eta gaztetxo gehiago erakartzen dituzte. Uztailean 306 izan ziren Txatxilipurdiren eskutik herrian hamaika ekintzez gozatu zuten gaztetxoak. Aisialdirako plan onena, eta euskaraz.

> EKONOMIA

Utilajes Moldcam enpresako langileak, kalera protestan

Arrasateko Moldcam enpresako langileek hainbat kale-agerraldi egin zituzten euren egoeraz protesta egiteko.

2009ko martxoaz geroztik nominarik kobraturik gabe zeuden eta langileek salatu zuten zuzendaritzak ekainaren 19an lege konkartsalaren babespean sartzeko eskaera "lantegia lehenbaileen ixteko" egin zutela, "39 langile kale gorrian geratzeko zori-zorian" utzita. Zuzendaritzak ez zuen orduan adierazpenik egin, bakarrik baiezta zuten epaileak ezarritako administratzailearen esanaren zain zeudela. Gatazkak luze irauen zuen.

> ETXEBIZITZA

Udalak hitzartutakoa betetzeko eskatu zion La Caixari

Zerrajerako La Caixako etxebizitzek arazoak sortu zituzten inauguratu eta gutxira. Alternatiba-Zutik koalizioak errekerimendua egin zion Hiriginta Sailari La Caixari azalpenak eskatzeko.

Hiru izan ziren arazo itriak: lehena, gehienezko errentaren igoera -260 eurotik 340 eurora-, bigarren salaketa izan zen bankuak maizterrak derrigortu zituela euren nomina edo pentsioa La Caixan izatera; azkenik, hasieran hitzartutakoaren aurka, kontratuaren luze-pena 65 urtetik gorakoek bakkrik eskatu ahal izateak ere kexak eragin zituen.

ALDEDI

Biteri etorbidea 8 ARRASATE Tel.: 943 79 13 05

Zorionak eta Urte berri on!

IRAILA



"Arrisku taldeetan egon ezean, A gripea hartuz gero ez da ezer pasatzen"

Iñaki Peña > Medikua
2009.09.04



"Denok gara sortzaileak, berdin da ze esparrutan jarduten dugun"

Iraitz Agirre > Garaion Naturartea
2009.09.24



GOIENKARIA

Presoen irudien gaineko debekua, tentsio iturri

Irailaren 24an EAEko Auzitegi Gorenak baimendu egin zuen Etxerat taldeak Arrasaten euskal presoen alde aurreikusitako kale-bilkura isilean presoen argazkiak erakustea. Bada, arratsaldean Ertzaintza herriko bost tabernatara sartu zen presoen argazkiak kentzera, eta Auzitegi Nazionalak Etxeratek deitutako kale-bilkurak eta Pakito Arriaran egin behar iztia omenaldia debekatu egin zituen. Tentsioz betetako egunak izan ziren -Nobetaixuen, esaterako-. Hala, herritar talde batetik *Utzi bakian Arrasate* lelopean kale-agerraldi isila deitu zuen urriaren 1erako.

hileko esaldia

"Arrasateko alkate izatea da nire amets nagusia eta egia bihur daiteke"

Aritz Arrieta > PSE-EE
2009.09.04

hileko datua

177

Garagartzako ortu ekologikoen zozketarako 197 herriarrek eman zuten izena. Baino Udalak 20 baztertu zituen, baldintzak betetzen ez zituztelako. Udalak guztira 80 ortu egokitzen zituen.



Ibai Artek telazko 20.000 poltsa bezeroei

Merkataritza Berdea astean, Ibai Arte elkartea telazko poltsak banatu zizkien bezeroei. 2009.09.12



Zarata handia Arrasateko saihesbidean

Udalak saihesbiderako zaraten aurkako panelak jaritzeko eskatu zion Aldundiari; onartu egin zen. 2009.09.24

> OMENALDIA

Ezkutuko omenaldia egin behar izan zioten Pakito Arriarani

Irailaren 26an El Salvadorren lagunak elkartea Pakito Arriaran omenez Uarkape pilotalekuant antolatutako bazkaria bertan behera utzi behar izan zuten. Auzitegi Nazionalak debekatu egin zuen omenaldia, Etxeraten deialdiekin batera. Gainera, Monterron parkean egitekoan zen ekitaldi politikoa ere ez zen aurreikusitako moduan egin. Baina ekitaldia egin, egin zen. Izan ere, 200 bat lagunek Arriaran eta harekin batera hil-dako beste bi lagunak omendu zituen, Ertzaintza eta komunikabideak ohartu barik.

> MUGIKORTASUNA

Aurtengoan ere arrakastatsua izan zen Mugikortasun Astea

Irail amaieran egin zen Mugikortasun Astea Debagoienean. Arrasaten hamaika ekintza egin zen; autoz beharrean beste era batera mugitzea posible dela erakusteko. Besteak beste, auto hibridoak, segway zirkuitua eta birzikleta azoka egin zituzten Arrasaten.

Birzikleta azokaren arrakasta borobila izan zen. Antolatzaleek jakinarazi zutenez, saltzeke zeuden bizikleten erdia baino gehiago saldu zen azokan. Antolatzaleak pozik agertu ziren astean zehar egindako ekintza.

Babes ofizialeko etxeetarako eskaintza bereziak



iKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

Zazpi ahizparen gai den oihala
ebakirikan erditik,
alde batera hiru soineko,
utzirikan lau bestetik;
guraiziakin berezi arren
bakoitza bere aldetik,
ezagutzen da jantzi dirala
zazpiak oihal batetik.

Oihaltzat hartu zagun Euskadi
guraizitzat Bidasoa,
hibai koxkor bat besterik ez da
hutsa... balitz itsasoa.
Elkarren hurbil daude zazpiak,
muga daitzen da Pausoa.
Zergatik izan ez behar degu
famili bakar osoa?

Arbola baten zainetatikan
sortzen diran landareak
bezala gara Bidasoaren
bi aldetako jendeak;
berdinak dira gure jatorri,
ohitura eta legeak,
ama euskarak magal berean
hazitako senideak.



Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:

**Basati, Ekaitz, Iluntz, Irati,
Muxibar, Taupa eta Gure Leku.**

URRIA



"Software librea errazagoa eta euskaldunagoa da"

Ander Elortondo > Librezale.org
elkartekoak > 2009.10.19



"Saia (putrea) animalia beharrezkoa da eta babestua dago"

Rafael Uribarren > Landa Inguru
Garapen diputatua > 2009.10.30

Agur mezaren ostean, San Frantzisko itxita

Domekan, urriaren 4an, itxi zituen atea San Frantzisko elizak. Hiru fraide geratzen ziren Arrasateko komentuan eta urrian joan ziren hirurak: bi fraide Oñatira (Bidaurretarra) eta hirugarrena, Tolosara. Hori horrela, Arrasateko anaidia bera ere itxi egin zuten. Agur meza esan zuten joan aurretik, eta azken urteotan San Frantziskon pastoralgintzan ibili zirenekin baxaria ere egin zuten.

Harrezkero, zalantzhan dagoena da zer gertatuko den orain arte frantziskotarrena izan den eraikinarekin eta barruan gordetzen dituen altxorrekin.

Urrian, beraz, frantziskotarrek amaiera eman zioten 427 urtean Arrasaten egindako ibilbideari.



U.M.

hileko esaldia

"Sahararrek diote askatasuna galdua beste ezer ezin dezaketela galdu"

Agurne Juldain > Nubi
elkarteko kidea > 2009-10-23

hileko datua

20

2010eko aurrekontua %20 murrizten ahaleginduko zirela iragarri zuen Galparsoro alkateak, baina ez arlo guztietan. Gizarte Zerbitzuetan eskaerak gorakada handia izan zuen, adibidez. 2009-10-26

Bigarren eskuko produktuen saltokia
↑ Inauguratu egin zuten Emaus Fundazioak eta Arrasateko Udalak elkarlanean abiarazitako ekimena. 2009.10.31

Utilajes Moldcam
↓ Langileak etxera bidalita, hutsik geratu zen Utilajes Moldcam, epailearen erabakiaren zain. 2009.10.05

izen propioak



Gabriel Aresti
POETA



Josemari Velez
HISTORIALARIA



Jonathan Perez
ATLETA

Gabriel Arestik *Maldan dan behera* liburua Bedoña auzoan aurkeztu zueneko 50. urteurrenare bete zen. Loramendiren omenezko ekitaldian aurkeztu zuen.

1949. urtea. Arrasate eta mundua liburu argitaratu zuen Josemari Velez de Mendizabal idazleak. 1949. urteko gerتاerak jaso zituen liburuan.

Gipuzkoako atleta onenaren saria eman zioten pertika jauzilaria. Perez 13 urterekin hasi zen atletismoan. Orain, Espainiako onenen artean da.



Goiena 10
Komunikazio Zerbitzuak URTE

AZA. | ABEN.



"Ikasle Eguna alaia, baikorra eta positiboa izan dadila nahi dugu"

Ainhoa Mendibil > Ikasle
Abertzaleetako kidea > 2009.11.07



"Erretiratuak hilda bageunde moduan konsideratzen gaituzte"

Jose Riviere > Erretiratuen ordezkaria > 2009.12.02



'30 urte Erdiko kaletik', eta herria girotzen

Azaroaren 28an, 30 urteko ibilbidea jasotzen zuen DVD eta diskoa aurkeztu zuten Arrasateko Gaiteroek: *'30 urte Erdiko kaletik'*. Arteman enpresak hartu zuen proiektu horren ardura. Aurkezpena herriko kaleetan barrena -nola, bestela- eta Kulturaten egin zuten. DVD eta diskoan 200 bat musikari agertzen dira eta horietatik gehienak izan ziren aurkezpenean. Gainera, dantzaririk ere ez zen falta izan. Izan ere, Otsagiko dantzariek bat egin zuten kalejirarekin. Merezi zuen aurkezpena egin ostean DVD eta diskoa salgai jarri zuten, eta Durangoko azokan ere ikusi ahal izan zen.



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
• E-posta: udala@aramaio.org



hileko esaldia

"Publikoaren erantzun bero honek niri beste 57 zarzuela egiteko gogoa ematen dit"

Tere Gonzalez > Zarzuelako zuzendaria > 2009.11.21

hileko datua

20

20 urte bete ditu aurten Goikobalu abesbatzak, eta azaroaren 20an amaitu zituzten urrian hasitako ospakizunak. San Juan bataiatzailean abesbatzako talde guztiak kontzertu berezia eskaini zuten.

Lehen Gurasolandia, arrakastatsua

Txatxilipurdik antolatu zuen gurasoendako I. jolasparkea arrakastatsua izan zen oso. 2009.11.15

Kanpatorpe kalea itxita Gabonen ostean

Kanpatorpe kale estrategikoa itxi egingo dutela jakinarazi zuten; albiste txarra oinezkoendako. 2009.11.23

> ZERBITZUAK

Atzerapen aipagarririk gabe amaitu zituzten Aldai parkeko lanak

Madrilgo gobernuaren E-planaren bitartez finantzatu ziren Aldaiako parkeko lanak aurreikusitako epeen barruan joan ziren. 2008ko urrian onartu zen proiektua eta abendu erdialdean amaitu zituzten obrak.

Parkearen ezaugarri bereizgarriena, akaso, erdigunean duen diseinuzko estalkia da. Loneta gogorreko da, tela itxura dauka eta teilatuaren funtzioa betetzen du. Hau da, euria egiten duen egunetan babesea emango dio erabiltzaileari. Arrasatek badu, beraz, hirugarraren parke bat.

> LEHIAKETA

Aurten marka guztiak apurtu zituen Aldai parkeko lanak

Akordeoiaren nazioarteko hiriburua bihurtu zen Arrasate abenduaren 4tik 8ra bitartean. Hauspoz elkartea antolatuta, Gipuzkoako, Euskal Herriko eta nazioarteko akordeoilari onenak izan ziren nor baino nor Amaia antzokian, ekitaldiaren XVII. edizioan.

2009an Semon Snmelkov akordeoilari errusiarra izan zen onena eta 3.600 euro eskuratu zituen. Gainera, kontzertu bira bat egiteko aukera ere lortu zuen. Epaimahaikide guztiak bat etorri ziren txapelketak "oso maila altua" izan zuela esaten.

ARAMAIO

URTEARI BEGIRATUA

2009

> ABENDUA

AHTren lanak Cuatrovientosera iritsi ziren

Iazko irailean hasi ziren Aramaion Abiadura Handiko Trena eraikitze-ko lanak. Langileek gau eta egun dihardute lanean eta urtebete pasatxoan Zabola eta Untzilla inguruak, esaterako, zeharo aldatu dira; Untzilla auzora doan errepidea zabaldu egin dute eta aldamenean zutabe erraldoiak eraiki dituzte; hamalau zutabe inguru. Untzillatik beste muturrean dagoen Cuatrovientos baserriaren beheko lursaileraiko doaz zutabeak; trena puntu horretan tunelean sartuko da eta Arrasaten aterako da. Beste aldean, Eskoriatzatik tunelpean iritsiko da trena Aramaiora, eta abenduan hasi ziren mendiak zulatzen.



JONE INUNTZIAGA

> URTARRILA
Plan Orokorraren Aholku Batzordea eratu zen

STOA enpresak landutako Plan Orokorraren aurrerakinak eztabaida sortu zuen udalbatzan eta herrian. Hala, urtarrilean Aholku Batzordea eratu zuten planaren irizpide berriak finkatzeko. Dagoeneko onartu dituzte irizpide berriak eta STOAri bidali, proiektu berria gara dezan.

> OTSAILA
Euskararen erabilera beherakada handia izan duela jakin zen

Soziolinguistika Klusterrak euskararen erabilera gaineran egindako azterketaren emaitzak publiko egin ziren; datuek kezka eragin zuten Udaleko Euskara batzordean. Beherakada handiena gazteetan gertatu da; euskararen erabilera %81etik %32ra jaiotsi da zazpi urtean.

ITURRIOSTE G A R A J E A

Nekazaritza makinen eta autoen salmenta eta konponketa.
Olio, gurpil eta balazten konponketa


Ondo ibili Gabonetan!!!

Santi Kurtz plaza 14. Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

ARBEL S.A.T 16

Garantiazko pentsu naturalak

Errotabarri 1,
Tel: 945 44 51 19
Aramaio



Iturrieta Sagardotegia

URTE BERRI ON GUZTIOI!

Aramaio (Araba) Tel.: 945 44 53 85 - 685 72 15 93

- Ostegunetik domekara zabalik
- Astelehenetik asteazkenera enkarguz bakarrik zerbitzatuko da.



> APIRILA

Aramaioar asko Bertsolari Txapelketan

Arabako bertsolari txapelketan, aurten, aramaioarrek presentzia handia izan zuten. Iñaki Altuna koordinatzaile lanetan ibili zen; Idoia Beitia, Garazi Eriz eta Amaia Lopez de Bergara gai-jartzale moduan; Naia Bailezek txapelketako logotipoa egin zuen, eta bertsotan jardun zuten Andere Arriolabengoa, Iker Agirrek, Xabier Igoak eta Manex Agirrek. Azken hori izan zen Gasteizko Printzipal antzokian jokatu zen finalera iritsi zen bakarra. Oraingoan ere txapela ez zen Aramaiora iritsi; Manex Agirre hirugarren postuan geratu zen.

> MAIATZA Sastiña 30 urterako Udalaren esku geratzeko hitzarmena

Aramaioko Udalak hitzarmena sinatu zuen Arabako Gotzaintza-rekin eta Sastiña ermita Udalaren esku geratu da datozen 30 urteetarako. Hitzarmen horretan bal-dintza batzuk zehazten dira eta horiek ika-mika sortu zuten hitzarmena onartu zeneko osoko bilku-ran. Oposizioak dio ez direla kon-tuan izan herriaren interesak.

> EKAINA Aramaiko Ondarea Berreskuratzeko Taldea sortu zen

Aspalditik zetozen asmoek argia ikusi zuten ekainean; Aramaiko gazte talde batek Aramaiko Ondarea Berreskuratzeko Taldea sortu zuen (AOBT). Lehenengo lanak ekainean hasi zituzten. Andramari ermitako eskailera-konpondu zituzten eta baita Sastiña ermitatik Ametzura doan bidea ere.

> UZTAILA San Martin jaietan sekulako giroa ipini zuten Pantxo eta Peiok

Aurten ere San Martin jaiek erantzun bikaina izan dute herriarren partetik: tortilla lehiaketa, txirritolinpiadak, koadrilen arteko pikeak, herri kirolak... Guztiek ere herriar asko batu zituzten. Zapatu gauean hitzordu garrantzitsua izan zuten: Pantxo eta Peioren kontzertua. Parke ingurua jendez bete zen.

> IRAILA Agenda 21 proiektua martxan ipini zuen Udalak

Irailean Tokiko Agenda 21ek lehenengo urratsak egin zituen Aramaion. Herritarrekin biler-a bat egin zen proiektuaren berri emateko; horrez gain, Udalak teknikari bat kontrata-tu zuen proiektua garatzeko. Herriko elkarte eta eragileen iritziak jaso eta 2010erako diag-nostikoa egitea da asmoa.

> URRIA Udalaren hizkuntza politikak 9,10eko nota lortu zuen

Kontseiluak ehun udalen hizkuntza politika neurtu du eta urrian eman zituen aditzera emaitzak. Aramaiok nota bikaina atera zuen: 9,10, hain justu ere. Udaleko Euskara batzordeak pozik hartu zuen berria eta Euskara zinegotziak azaldu zuen "gauzak ondo egiten" ari diren seinale dela.

> AZAROA Erretiratuen Egunean ez zen ganadurik egon, otsoen eraso-en kontra protesta egiteko

Erretiratuen Eguna egun handia izan ohi da Aramaion, eta aurten ez da gutxiagorako izan; baina aurreko urtekin alderatuta izan zen aldaketarik, eta ez onerako, hain justu ere. Otsoen era-soen arazoa dela-eta, Aramaioko baserritarrek bat egin zuten UAGA sindikatuak eta Sergal abeltzainen kooperatibak Arabako gana-du azokak boikotatzeko egin zuten deialdiarekin. Udalak deialdiarekin bat egin zuen eta ez zen ganadurik egon azokan.



JOSETXO ARANTZABAL

BEHI-ALDE, KOOP. E.
Olaeta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
Apartado 44
20500 Mondragon

BEHI-ALDE
ERKOP

urte berri on!



Tel.: 945 45 01 00
945 45 03 15
Faxa: 945 45 01 00
945 45 03 15

Unzueta sagardotegia

Gabon zoriontsuak guzcioi !

- sagardoa txotxetik
-
- sagardotegiko menua
-
- karta
- eguneko menua
-
- ospakizunak
-
- enpresako bazkaria

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95





GUREA

Ondo pasa gabonak!

TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64

Mobiliario
ARENAZA

Bizkaia 1 ARETXABAleta
Tel.: 943 79 08 07

- **Altzariak**
- **Diseinua**
- **Apainketa**

Urte berri on
guztioi!




Goienkaria

Eguaztena / 2009ko abenduaren 23a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ARGAZKIAK: MIRARI ALTUBE / JOSETXO ARANTZABAL



EGUZKIGRAF
inprimategia

URTARRILA



"Euskararen Planean sartu ditugu enpresak eta merkataritza"

Iñaxio Garro > Alkatea eta Euskara Batzordeburua > 2009.01.23



"Lan kopuruak gora egin du Loramendi Literatura Lehiaketan"

Larraitz Iñurrategi > Loramendiko dinamizatzailea > 2009.01.23

LANAK > ZERBITZUAK

Kirol etxea botatzen hasi ziren berria eraikitze

Urtarrilaren 12an hasi ziren kirol etxea botatzen Redenor enpresako hondeatze-makinak. Lanok azaroan egin gura zituen Udalak, baina desmuntatze lanek luze jo zuten. Uralitazko xaflak bustita ezin zituzten kentu eta, udazken euritsuaren ondorioz, egun askotan geldi

egon ziren langileak. Material guztiak gaika kendu eta gero hasi ziren kirol etxeo aurrealdea botatzen. Porlana kendu ahala txikitu egin zuten eta gainerako materialak gaika sailkatu zituzten. Otsail erdirako utzi zuten orubea gertu berria eraikitzen hasteko.



Hondeatze-makinak kirol etxeo aurrealdea botatzen.

MIRARI ALTUBE

OTSAILA



"Euskara elkartea izateaz gain kultura erreferente izan da Loramendi azken urteotan Aretxabaletan"

Iker Urkia > Loramendi Euskara Elkarteko presidente > 2006.02.27

UDALA > AURREKONTUA

17 milioi eurotik gorako aurrekontua onartu zuten

Otsailaren 12an onartu zuen udalbatzak 2009ko udal aurrekontua, Aralarren eta Ezker Batuaren aldeko botoekin eta PSE-EEko bi zinegotziak eta EAJko biak abstentuta. Eusko Alkartasunak, osteria, ezetza eman zion 17.530.910 euroko aurrekontuari. Iazkoarekin alderatuta sei milioi gehia-

go aurreikusi zituzten, kirol etxe berriaren lanak ordaintzeko. Inbertsioak egiteko 10 milioi euro erabiliko zituztela iragarri zuen alkateak, eta ohiko gastuarenak 7.300.000 euro inguru. Gainera, diru sarrerak zelan igo eta ohiko gastua zelan jaitsi aztertzeko konpromisoa hartzuten.

**> KEXAK
Txakur kakekin gogaituta zeuden hainbat herritar**

Bedarreta auzoko hainbat bizi-lagun gogaituta zeuden etxe aurreko lorategialk txakur kakaz beteta zituztelako. Hala, urtarriaren 15ean zenbatu egin zituzten txakurren gorutz guztiak eta gainean zenbakia jarri. 50 metro inguruko zatian 45 bat gorutz zenbatu zituzten. Isunak jartzeko eskatu zuten, arazoak konpon zedin.



Erditzearen kalejiran. JOSETXO ARANTZABAL



Andra Mari Auzunea, 3 Behea
ARETXABAleta
Tel. / Fax.: 943 79 29 26

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

FISKALA • KONTABLEA
LABORALA • DEFENTSA JURIDIKOA

*Jai Zoriontsuak
eta
Urte Berri On!*



Areantza auzoa ARETXABAleta Tel.: 943 79 17 51

Mitartegeparai
Baserri turismoa eta taberna

Zorionak
denoi!

- Batzar gela.
- Jangela.
- Logelak.
- Etxeko produktuen salmenta.



MARTXOA



"Argazki artxibo dotorea daukagu; herrian egindako aldaketa guztiak daude jasota iruditan"

Manolo Urtubi > Argazki artxiboko kidea
2009.03.27

APIRILA



"Saharako umeek uda giro osasuntsuan pasa dezaten gura dugu"

Olaia Sagredo > lesbaa elkarteko arduraduna > 2009.04.03



"Aretxabaletarrok ordain dezakegun kirol etxerik onena nahi dut"

Lore Martinez > EAko zinegotzia
2009.04.03

EMAKUMEA > BERDINTASUN PLANA

Berdintasuna lortzeko plana abian jartzekotan ziren

Berdintasun Sailak herriko diagnostikoa egin eta genero berdin-tasuna lortzeko plana jarri zuen abian 2009-2012 tarterako martxoaren 8aren bueltan. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta bermatzea zuen helburu planak, emakumeen autonomiari arreta berezia eskainita.

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren adierazpenak lantza ere proposatu zuten, prebentziaren eta arretaren ikuspegitik.

HILABETE GUZTIAN EKINTZAK

Emakumeen Nazioarteko Eguna kontuan hartuta, hilabete osorako egitaraua antolatu zuten.



Zuhaitzak landatzen. MIRARI ALTUBE

INGURUMENA > ATMOSFERAKO KUTSADURA

Airearen kutsadura neurtu zuten berriro Ibarra parean

Airearen kalitatea aztertzen jar-dun zuten martxoaren 10ean hasi eta apirila bukatu artean. Horretarako, laginak hartzenten unitate mugikorra jarri zuten Ibarra futbol zelai parean. Aurreko urtean ere egin zuten azterketa, baina ondorioak ateratzeko lakin gutxi izan ziren.

Kutsatzaile nagusitzat har-tzen diren gasak aztertu zituzten, baita meteorologiak aldaketa ere: temperatura, haizea, euria eta hezetasuna. Eta aireko partikulei jarraipena egin zieten.

Aurreko urteko azterketak ez zituen gainditu legeak eza-rritako gutxienekoak.

> HIRIGINTZA
Kirol etxearen proiektua onartu egin zuen udalbatzak

EA alderdiak ezezkoa eman arren, gehiago itxaroteko eskatuta, udalbatzak onartu egin zuen kirol etxe berriaren proiektua martxoaren 30ean. Lanak egiteko oinarriak ere onartu zituzten, eta deialdia egin: 14 milioi euroko aurrekontua zuten eraikitze lanek eta 24 hilabeteko epea ezarri zuten guztia bukatzeko.

> ETXEBIZITZA

Etxe tasatuen zozketa egiteko hitzarmena berritu zuen Udalak

Hainbat etxebizitza tasatu hutsik zeudela-eta Bruesa enpresak eta Udalak hitzarmena berritu zuten apirilaren 2an beste zozketa bat egiteko. Lau talde egin zituzten zozketan sartzeko, eta Debagoieneko bizilagunei sartzeko aukera eman zieten. Gainera, etxeren bat hutsik geratuz gero Bruesak nahi bezala saltzeko aukera izango luke, prezioa errespetatuta.

> INGURUMENA

Herriko 150 farola aldatzen hasi ziren energia aurrezteko

Herriko 150 farola aldatza era-baki zuen Udalak, argi kutsadura murritz, argindarraren era-ginkortasuna hobetu eta energia aurrezteko. Farolen instalazioen aldaketa Espainiako Gobernuak agindutako dirulaguntzarekin egin zuten: 54.288 eurorekin, hain zuzen. Electricidad Aranzabal enpresak egin zituen lanok apirileko azken astean hasita.

> ZIRKULAZIOA

Seinaleak jarri zituzten kaleetan eta auzoetan

Bi eratako seinaleak jarri zituzten apirilaren 15 eta 22 artean hainbat kaletan eta zenbait auzotako bideetan: nondik jo bideratzen dutenak eta tokia zehazten dutenak.

Jaurlaritzak gomendatutako seinaleak ziren jarritakoak eta 27.152 euroko aurrekontua izan zuten. Iaz herriko baserri guztieei jarri zizkieten izenak.

Laborantza tresnak Ongarriak- Haziak

Mitarte 7, behea
ARETXABAleta
Tel.: 943 77 00 33 / 79 42 56

FELIX PAGALDAY



Zorionak eta
urte berri on!

garbittu, s.coop.

Errekabarren 3 Behea ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbitu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak

Zorionak eta urte berri on!

MAIATZA | EKAINA | UZTAILA



"Igoerak aldaketak eragingo ditu aurrekontuan; 180.000 euro ingurukoa izango da"

Eduardo Altube > UDAko presidentea
2009.05.22



"Gidatzean zelan murriztu kutsadura eta aurreztu dirua erakutsiko dute"

Joxe Anjel Antxia > Ingurumen zinegotzia
2009.06.12



"Espainiako txapelketan urrezko domina eskuratzea edonorendako da poztasuna"

Hector Prieto > Boccia jokalaria
2009.07.03

KIROLAK > FUTBOLA

Preferenteko taldea hirugarren mailara igo zen

Maiatzaren 16an Tolosaren aurka jokatutako partidua 1-2 irabazita lortu zuen UDAko preferente mailako taldeak hirugarren mailara igotzea. Tolosan jokatutako partidura 200 bat zale joan ziren, eta garaipenarekin itzuli. Gauean bertan ospatu zuten jokalari, zuzendaritzan

ko kide eta zaleek igoera: kamioian etorrera udaletxera eta plazan zaleekin elkartu. Maiatzaren 24an Mondraren aurkako derbia jokatu zuten etxearen. Omenaldi ekitaldiak egin zituzten orduan eta federazioko presidentearen eskuak kopako jaso zuten jokalariekin.



UDAk hirugarren mailarako igoera ospatzen, Tolosan. JOSEKO ARANTZABAL

> GIZARTE ZERBITZUAK
Zaharren egoitza berria zabaldzu zuen GSR enpresak

Ekainaren 8an zabaldzu zuten zaharren egoitza berria eta lehen egoilarrak iritsi-lehen astean 38-. Bi guneko egoitza da: eguneko zentroa (50 plaza) eta erresidentzia (170 plaza; horietatik 68, pribatuak).

Urats Gain zaharren egoitzan zeuden egoiliar eta langile guztiak joan ziren GSR enpresak kudeatutako berrira.

> HAUTESKUNDEAK
Iniziatiiba Internazionalista nagusi herrian

Europako Parlamenturako hauteskundeak egin ziren ekainaren 7an eta Iniziatiiba Internazionalista taldeak jaso zituen boto gehien (669) Aretxabaletan. Atzetik geratu ziren EAJ (516), PSE-EE (403), Aralar eta EA barruan zituen taldea (290), PP (114) eta EB-Berdeak (32). Abstentzia %60,77koa izan zen.

LANAK > KIROL ETXE BERRIA

Galdiano enpresari esleitu zizkioten kirol etxeko lanak

Uztailaren 20an egindako osoko bilkuraren Donostiarra Galdiano eraikuntza enpresari esleitu zizkioten kirol etxe berriko lanak –19 enpresaren artean hautatuta-. Aralar, PSE-EE eta Ezker Batua-Berdean aldeko botoak jaso zituen; EA eta EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren.



Uztailaren 11ko Hip-hop Eguna. J.A.

> GAZTEAK
Hip-hop Eguna antolatu zuen lehenengo Gazteria Zerbitzuak

Hip-hop Eguna egin zuen uztailaren 11n Gazteria Zerbitzuak. Goizean taiderrak izan ziren: graffitiak zelan margotu, scratch eta DJ taiderrak eta break dantza. Arratsaldean, ostera, Bertso-sound System jaialdia egin zuten: Xabier Silveira eta Unai Muñoz bertsolariak, rap abeslari euskaldunak, Aritz Sound System disk jartzalea eta break dantzariak.

Automakillaje ikastaroa

Gemes
Gabonetarako
eskaintza bereziak

GABON ZORIONTSUAK!
Beti zuengandik hurbil!

Laserra: 3x2
(bi ordaindu eta
hirugarrena doan)

GABON ZORIONTSUAK!
Beti zuengandik hurbil!

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18 **ARETXABAleta**

Atxabaltar danoi Gabon zoriontsuak eta urte barri on!



Aretxabaletako
Udala

ABUZTUA | IRAILA | URRIA



"Leintz bailarako kontu benetan politak topatu ditut eta liburuan jaso ditugu"

Rosa Aierbe > 'La historia del Valle de Leniz' liburuan idazlea > 2009.09.19



"Benito Lertxundiri omenalditxoa eskaini gura diogu gure emanaldiarekin"

Angel Barandiaran > Abesbatzako zuzendaria > 2009.09.25



"Urrian 111 lagunek eman dute odola, baina odol emaile berriak gura ditugu"

Ramon Eraña > Odol emaileen herriko arduraduna > 2009.10.23

JAIAK > ATXILOKETAK

Lau lagun atxilotu zituen Ertzaintzak San Migel jaietan

Irailaren 26 eguerdian, San Migel jaietako herri bazkaria hasi aurretik, ertzainek lau lagun atxilotu zituzten Iturrigorri frontoi inguruan eta Bergarako komisaldegira eroan. Atxilotutako hiru terrorismoaren gorazarrea egitea egotzi zieten presoen aldeko pegatinak zituztelako eta lauga-

rrenari desobedientzia, ez zuela ko identifikatu gura izan. Ilun-karan askatu zituzten.

Adierazpen instituzionala onartu zuen Udalak atxiloketok gaitzesteko Aralarren eta Ezker Batua-Berdeak alderdien aldeko botoekin. Alderdi sozialista guztiz kontra azaldu zen.

> POLITIKA
Kepa Urraren irudia margo zuriarekin ezabatu zuten abuztuan

Abuztuaren 24an ezabatu zuen Udalak Kurtzebarri eskolako kantxan zegoen Kepa Urra presoaren irudia. Abuztuko lehen astean jaso zuten udaletxearen Ertzaintzaren errekerimendua baina alkateak ez zuen halako presarik ikusi eta Andramaixa jaiak pasatu artean itxarotea erabaki zuen. Mitarte kaleko horma-irudiak ere kendu zituzten.

> KIROLAK
Denboraldi hasiera jaia antolatu zuen UDAK dirua batzeko

Txahal okela eskainita egin zuen denboraldi hasierako jaia Aretxabaleta Kirol Elkartea irailaren 12an. 3x3 futbol partidak jokatu zituzten gazteek eta txahal mokadutxoa eta ardoa eskaini zizkieten gero herritarrei UDAko kideek. Dirua batzeko antolatutako jaia izan zen eta beste bi egingo zituztela iragarri zuten: Odo-loste Eguna eta Garagardo jaia.

EZBEHARRA > SUTEA

Hozteko makina bat hondatu eta Eroski saltokia erre zen

Sua piztu zen Mitarte kaleko Eroski saltokian urriaren 13ko ilunkaran, urdaitegiko hozteko makina bat hondatu ostean. 100 bat bezero eta sei langile zeuden barruan sutea gertatutakoan, baina ez zen inor zauritu. Saltoki gaineko bizilagunak ere ate-rarazi egin zituzten ertzainek.

Urdaitegi ingurua erre egin zen eta gainerakoa guztiz zikindu ke beltzaren ondorioz. Den-daren egiturak ez zuela kalte-rik jasan erabaki zuten baloratza etorritako periturek, baina denda guztia berriutu beharrean geratu zen eta jenero guztia hondatuta.



Ke beltza ateratzen Eroski saltoki barrutik urriaren 13ko ilunkaran. MIRARI ALTUBE


> ETXEBIZITZA
Ibaiaren beste aldeko etxe tasatuen lehen giltzak banatuta

Urriaren 22an egindako ekitaldi ofizialean banatu zituen Bruesa eraikuntza enpresak Deba ibaiaren beste aldean egiten dabiltzan etxe tasatuen lehenengo 40 giltzak. Guztira 232 etxe tasatu egingo ditu, 12 bloketan banatuta, eta bukatutako bi blokeak Galartza auzora doan bide albokoak izan ziren.

> POLITIKA
Zuhaitz Errasti atxilotu zuen Frantziako poliziak

Frantziako hegoaldean atxilotu zuen poliziak Zuhaitz Errasti urriaren 26an. Poliziak esandakoaren arabera, gidatzen ari zen autoa matxuratu ostean atxilotu zuten.

Hurrengo egunean Errastiren senide batzuen etxea miatzera etorri ziren Guardia Zibilaren bost patruila Gorbeia kalera.



EAJ PNV

Aretxabaletako EAJ/PNV-k

Gabon zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!

Galartzatik Larrinoraino,
Errota Barritik Santutxoraino,
pakea, askatasuna eta itxaropena
atxabaltar guztiondonako.


aretxabaletako

EGUN ZORIONTSUAK
ETA URTE BARRI ON



www.aralar.net

 ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABAleta



 ETXE MOBEL
ALTZARIk
ARRASATE

 ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABAleta
FAGOR
banatzalea ofiziala



 ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABAleta
expert
banatzalea ofiziala

Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ
ARETXABAleta • ARRASATE
1950•2009

GABON
ZORIONTSUAK!

AZAROA



"Andeetan egoera larrian bizi direnei laguntzea da helburua"

Ibon Antero > Hiruatz elkarteko koordinatzailea > 2009.11.06



"Hausnarketa bultzatu gura dugu genero indarkeriaren aurrean"

Anne Agirre > Berdintasun Saileko teknikaria > 2009.11.25

LANAK > ERREPIDEA

Arrasate eta Aretxabaleta arteko biribilgunea egiten

Bi herrien artean egitekoak ziren biribilgunearen proiektuari aldaketak egin eta ikusgai jarri zuten azaro guztian.

Biribilguneak 80 metroko diametroa izango du. Arrasate eta Aretxabaleta arteko eskualde-errepidearen kota igo eginago dute eta bi zubi izango ditu

Deba ibaiaren gainetik. Bidegorri zatia biribilgunearen azpitik pasatuko da. Gainera, GI-627 sainhezidearen trazatua apur bat mugituko dute.

Lanok Aldundiaren esku geratu ziren, 1,9 milioi euroko aurrekontuarekin, eta 2010eko uztailean bukatuko dituzte.



Arrasate eta Aretxabaleta arteko biribilgunea egingo duten gunea. J. ARANTZABAL

> ZERBITZUA
Errekabarren kaleko autobus geltokia aldatu egin zuten

Geltoki plazara aldatu zuten autobus geltokia azaroaren 2an. Aldaketaren arrazoia bi izan ziren: arriskua murriztea –astero 305 autobus herri erditik– eta Pesa konpainiak jarritako baldintza betetzea: Gasteizera autobidetik doan autobusa Aretxabaletatik pasatzeko geltokia herritik kanpo egotea.

> LITERATURA
Poesia liburua argitaratu zuen Karmele Igartuak

Denbora enaren hegaletan poesia liburua argitaratu zuen irakasle eta idazle aretxabaletarrak azaroaren 10ean. Bigarren poesia liburua zen Igartuarendako, lehenengoa, *Hitzak orbainetan*, iaz kaleratu zuen-eta. Abenduaren 2an aurkeztu zuen herrian eta ondoren Durangoko azokan izan zen.



Gabon zoriontsuak eta urte berri on

Belar Meta®
gazteentzako moda

Durana kalea, 20 Aretxabaleta 943 53 27 39

Löf **Repetto** **khujo**
ZERGATIK **diksi** **bench** **ondde**
NWS **EDC** **Rosalía Mc Gee**

ABENDUA



"Erretiratua protagonista izatea da kantu txapelketaren helburu bat; hori lortzeko baliabideak izango dituzte"

Pedro Etxebarria > Basotxo Erretiratuen Elkarteko zuzendaritzako kidea > 2009.12.01

INDUSTRIA > LANTEGIA

Coprecik beste eraikin bat egiteko lehen onarpena


Copreci lantegia txiki geratu zela eta irtenbide bila ibili ziren lantegiko arduradunak Udalarekin. Lekualdatzea pentsatu arren hasieran –Zubikoara–, ekonomikoki ez zela bideragarria ondorioztatu zuten. Orduan, aparkalekuaren beste eraikin bat egitea erabaki zuten. Udalak hasierako onarpe-

na eman zion proiektu horri abenduko osoko bilkuran, eta herritarren parte-hartze prozesua abian jartzea erabaki.

Bi solairuko lur azpiko aparkaleku egitea aurreikusi zuten, eta gora beste bi solairu egitea eraikinari. Oraingo lantegiaren osagarri izatea zen helburua.




Mitarte kalea, berrituta. MIRARI ALTUBE



Goienkaria

Eguaztena / 2009ko abenduaren 23a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



ESKORIATZA URTEARI BEGIRATUA 2009



ARGAZKIAK: MIRIAN BITERI / JOSETXO ARANTZABAL



Zubia Pateek gabon jai zoriontsuak
opa dizkizuete guztioi!

Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza
Tel.: 943 71 51 31 / Faxa: 943 71 52 79
www.pateszubia.com



URTARRILA



"Erretiratuen elkarteko presidente izan naizen bitartean, besteendako lan egitea gauza polita da niretako"

Pedro Mari Armendariz
Olazarko presidente ohia > 2009.01.30

UDALA > LAGUNTZAK

Madrilgo 700.250 euroekin hamar proiektu egin zituzten

Espaniako Estatuko Fondoetako 700.250 euro bideratu zituzten ezohiko inbertsioak egiteko. Urtarrilaren 19ko bilkuran, diruarekin abian jarri beharreko proiektuak adostu zituen udalbatzak. Hamar dira: Aranburuzabala-Arana kaleak hobetzea; Olaetako pilotalekuak estaltzea; Txistularien Arratea

birgaitzea; Lete eta Eraña arteko zein Zarimutzeako bideetan hormigoia botatzea; San Pedro auzoa berriz urbanizatzea; Bolibarren, Erañan, Leten eta Mendiola ur-horridura sarea birgaitzea; Luis Ezeizako su-detektagailua hobetzea; eta Kulunkako eta liburutegiko teilitua konpontzea.

> TURISMOA
Zubiateko labearen gaineko proiektua onartu du udalbatzak

Zubiateko labearen balioa indartzeko proiektua onartzea eta hori egiteko Jaurlaritzako Turismo Sailari laguntza eskatzea onartu zuen urtarriaren 19an Udalak. Lanak hainbat fasetan egitea onartu zuen. Lehenengoan, labearen inguruko aretoa egokitzea aurreikusi zen, interpretazio gunea eta erakusketa aretoa sortuta. Horretarako 96.526 euro behar ziren.



Zubiateko labea.

MIRIAN BITERI

MARTIN



Ondo pasa Gabonak!

San Juan kalea 12 A Tel.: 652 77 53 58

OTSAILA



"Azpiegitura modernoa pasa arren, ez dugu autobus zerbitzurik"

Unai Salaberria
Maringo alkatea > 2009.02.16



"Umeei giza balioak barneratzen saiatzen naiz ipuin bidez"

Vanessa Gonzalez
Ipuin kontalaria > 2009.02.26

UDALA > AURREKONTUA

Prozedura akatsagatik, kontuak atzera bota zituzten

Urtarrilean udalbatzak onartu zuten 2009ko aurrekontu orokorrari alegazia aurkeztu zion EA taldeak, prozesuan jarraitutako prozeduraren akatsa izan zela argudiatz. Diputazioak arrazoia eman zion eta prozesua berriro hasteko agindu zion Udalari. Hortaz, otsailaren

25ean hasierako onarpena eman zioten berriro. EAk eta EAJK kontra bozkatu zuten eta Udal Gobernukoek alde. EB-Berdeak eta PSE taldekoak abstentzu egin ziren. 2009rako esandako proiektuak 4.900.524,36 euro aurreikusi zituen; 2008an baino %9,75 gutxiago.

> INGURUMENA

Energia berriztagarria erabiltzen duen galdera kultura etxeen

Otsailean, aspaldiko gasolioidun biltegia kendu eta energia berriztagarria erabiltzen duen biomasa galdera berria jarri zuten kultura etxeen. Horrek pellet erre-gaia erabiltzen du. Ordura arte Euskal Herrian eraikin publikoetan jarritako bakanetako zen kultura etxeko galdera berri hori.

> UMEAK

Pirritx eta Porrotxen sarrerak herrikoendako izango dira lehenengo

Eskoriatzako ume asko Pirritx eta Porrotx herrian ikusteko aukera barik geratu dira azken urteotan, gurasoen haserrea pitzuz. Horri buelta emateko, antolatzaileek erabaki zuten lehenengo herriko ikastetxeko haurrei ematea emanaldi horretarako sarrera erosteko aukera eta ondoren, soberan geratutakoak, ohiko moduan jartzea salgai.

> ISUNAK

Lehen 15 egunetan ordaintzeagatik, isunak %50 merkeagoak

Udalbatzak zirkulazio arloan egiten diren lege-hausteak arautzen dituen ordenantza aldatzea erabaki zuen otsailaren 25eko bilkuran. Ordura arte, Udal-tzaingoak jarritako isunak lehen hamabost egunetan ordaintzen baziren, %30eko deskontua egiten zen ordaindu beharreko kopuruan. Udalbatzak kopuru hori %50era igotzea adostu zuen.

> KIROLA

Kirol instalazioen erabileraren gaineko araudian aldaketak

Otsailaren 25eko bilkuran, kirol instalazioen eta zerbitzuen erabilera arautzen duen ordenantza aldatzea erabaki zuten. Ordura arte bonu mankomunitatua zuten hainbat sektorek ez zuten deskonturik, hala nola familia ugarietik eta erretiratuta edo langabeziaren zeuden familia unitateek. Aldaketari esker, bonu hori dute nek %50eko deskontua dute.

**Gabon jairik zoriontsuenak
opa dizkizue Lenizek!
Urte berrir on!**



KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA

**Bigarren eskuko autoen salerosketa,
injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45 Posta-e: rleniz@euskalnet.net

A large, light blue-painted building with a red-tiled roof and dark wooden trim around windows and doors. The building has a rustic stone base and a tiled walkway in front. A small sign on the building reads "TABAKOAK".
An inset photograph showing a bar counter made of dark wood. Behind the counter are shelves filled with various bottles of alcohol. The wall behind the counter is made of red brick.
An inset photograph of a dining room with several tables set with white tablecloths and red napkins. The room has stone walls and a rustic wooden door.

**Maulanda
merenderoa**

Gabon
zoriontsuak!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

MARTXOA



"AP-1 dela eta, asmoa da bazterrak ahalik eta txukunen ixtea"

Garikoitz Ibabe
Apotzagako alkatea > 2006.03.30



"Atzerrian arrakasta lortu behar da etxera bueltatu baino lehen"

Iñaki Encina
Orkestra zuzendaria > 2009.03.13

AZPIEGITURAK > AP-1

Intxaurtxuetako sarbideak itxura berria estreinatu zuen

Astebeteko lanen ostean, Eskoriatzako iparraldeko sarbide berria amaitu egin zuten martxoaren erdialdean. GI-627 erreidea eta Gasteiz eta Eibar arteko AP-1 autobidearen arteko lotunea zela eta, Intxaurtxuetako sarrera berritu behar izan zuten; besteak beste, biribilgu-

ne berria egin zuten. Horri azken ukituak emateko, sarbidea, martxoaren 9tik 13ra bitartean, ibilgailuendako astebete egon zen gauean itxita.

Injurune horretan nabarmen hobetu da gidarien segurtasuna; bereziki, herriko iparretik irteten direnendako.



Intxaurtxuetako biribilgune berria.

MIRIAN BITERI

OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua

- Gazte menua

- Karta

Bazkariak eramateko

Gabon jai zoriontsuak!

APIRILA



"Kanpoan jaio banintzen ere, bizitza osoa hemen daramat, eta, beraz, eskoriatzarra naiz"

Bartolo Carrillo
Erretiratua > 2006.04.24

KULTURA > EKIMENAK

'Kataia eten barik' egitarau barruan, ekimen ugari

Egitarau zabala gertatu zuten Kataia eten barik barruan. Aurtengo gaia immigrazioaren gainezka izan da. Urtero bezala, liburu azoka jarri zuten plazan, apirilaren 24an: *Bat ekari/bi eruen* kanpaina egin zuten.

Egitarauaren harira, Jon Maia herriean izan zen. Apirilaren 27an,

hark zuzendutako *Bidaia intimoak* dokumentala eman zuten eta hurrengo egunean, *Extremadurrik euskararen herrira* hitzaldia egin zuen bertsolariak.

Bestalde, apirilaren 28an egiteko zen *Kanpotik nator, baina bertakoa naiz* mahai-ingurua maiatzaren 6ra atzeratu zen.



2009ko herriko lan onena.

M.B.



Villar

lle apaindegia

Urte berri zoriontsuena opa dizuegu!

Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA



IOSU


harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Javik eta Juanek gabon zoriontsuak opa dizkizuet!



BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITU

UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABAleta

Ondo ibili Gabonetan

MAIATZA | EKAINA | UZTAILA



"Barregarria da Udalak sindikatua izan balitz bezala portatzea"

Iñaki Pierruges

PSE-EEko zinegotzia > 2006.05.14



"Fokatze-puntua argazki taldea eratu dugu; orain, bost lagunek osatzen dugu"

Joseba Gabilondo

Fokatze-puntuko kidea > 2006.06.12



"Ur emari gutxiagorekin bada ere, ilusio handiz eutsi diogu Errekan Gorari"

Dorleta Kortazar

Aitzorrotzerreko kidea > 2009.07.13

AP-1 > KALTEAK

Lanek eragindako kalteak konpontzeko eskatu zuten

AP-1 autobidearen lanen amaiera dela-eta, Udalak obra horiek behar bezala amaitzeko trami-teak egin eta kaltetuen eskaerak bideratzeko konpromisoa hartu zuen maiatzaren 14ko osoko bilkuraren. Besteak beste, *Autopistako lanak amaitzeko zereginak eta eskaerak txostenia* Diputu-

tazioko Bide Azpiegiturako eta Bidegiko arduradunari eta Jaurlaritzako Ingurumen Sailari bidaltzeaz arduratu zen.

Gogorarazten zen oraindik lan asko daudela egiteke eta, horren harira, neurri zuzentzialeak eta konpentsazio neurriak bultzatzeke zeudela.



AP-1 autobideko lanek Mazmelako bidean eragindako kalteak. MIRIAN BITERI

> ENERGIA

Eraikin publikoetan energia kontsumoa murrizteko akordioa

Udalak Eudelekin hitzarmena sinatu zuen maiatzean, eraikin publikoetan energia kontsumoa %20 murrizteko. Lehenengo, hiru eraikinetako kontsumoa neurtu behar ziren: Luis Ezeiza ikastetxean, udal-letxean eta kirolegian. Horiek aztertu eta praktika egokien bidez gastua murriztea zen egitasmo horren helburua.

> UDALA

Hileta eta omenaldi zibilak egiteko araudia egin zuten

Eskoriatzako udalbatzak hileta edo omenaldi zibilak egiteko sortutako ordenantzari hasierako onarpena eman zion maiatzaren 27an. Araudi berri horren helburu nagusia zen esandako ekimenak egin ahal izateko alde bakotzak bete behar dituen baldintzak eta udal lokalaren erabilerria eta baimena arautzea.

GAZTEAK > AISIALDIA

Eingainke gazte mugimendu irekia sortu zuten

Gaur egun herrian dagoen "pasi-botasunarekin" amaitu gura zuen herriko gazte talde batek eta horretarako Eingainke izeneko mugimendua sortu zuen uda partean. "Edonori zabalik" zegoela eta, horiaz, gazteei bururatzentz zitzaileen edozein ideia aztertzen zutela jakinarazi zuten. Hori bai, proposa-

men horiek euskara "oinarri" har-tuta izan behar zuten.

Ideia aspaldikoa baten ere, apiril aldean lanean jarri ziren zembait gazte. Udalari lokala esku-tu eta han bariku arratsaldeetan biltzen hasi ziren, kanpora begira egin behar ziren ekimenak zehazteko eta antolatzeko.



Udal Gobernuko kideak. M.B.



Gaztainadui 15, behe • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)

Yadie industrialdea 14. pab. • Legutiano (Araba)
e-posta: razkin@teleline.es www.construccionesrazkin.com

**Eraikuntzak
Obra Publikoak
Kontrata Orokorrak**

Ondo pasa gabonetan!

Tel.: 943 71 49 47 • Faxa: 943 71 31 63



Gustura egoteko!

Intxaurtxueta 8 **ESKORIATZA**

943 71 40 63

ABUZTUA | IRAILA | URRIA



"Gure asmoa auzo lokalak egitea da, hemen, parrokiaren alboan"

Igor Elkorobarrutia
Zarimutzeo alkatea > 2009.09.21



"Mugikortasun Asteak, iaz ibilitako jendeak errepikatzen du eta hori pozgarria da"

Saioa Altzua
Udal teknikaria > 2009.09.25



"Atxorrotzeko gazteluaren oinarriak metro eta erdiko sakoneran daude"

Iñaki Sagredo
Historialaria > 2009.10.02

INGURUMENA > UDALA

Ura aurrezteari buruzko ordenantza onartu zuten

Udalatzak ura aurrezteari buruzko ordenantza behin betiko onartu zuen urriaren 28an egindako osoko bilkuran. Horren arabera, udalerrian berritzen edo egiten diren eraikin berriaren uraren kontsumoa murrizteko eta zarrastelkeria ekiditeko hainbat neurri jarri behar dira derri-

gorrez. Esandako araudiak ura aurrezko erabili beharreko gailuak zehazteaz gain, uraren kalitatearen egokitzapenaren gainean ere jarduten du.

Arauak hausten dituztenen-dako isunak ere zehazten ditu ordenantza berriak: 750 eurotik 3.000 eurora, hain justu ere.

> MUSIKA
Berri Txarrakek 'Payola'
diskoaren aurkezpen ofiziala egin zuen

Lekunberriko Berri Txarrak taldeak *'Payola'* discoaren aurkezpen ofiziala egin zuen herriko kirolegian irailaren 19an, Aitzorrotz kultura elkartearren laguntzarekin. Portugalgo Simbiosis eta Tolosako Deabruak Teilateetan taldeek jo zuten nafarrekin batera. Euskal Herriko bazter askotako musika zale batu zen egun horretan Eskoriatzan.

> GAZTEAK
Skate parkea
inauguratu zuten tren geltoki zaharrean

Udalak skate parkea inauguratu zuen urriaren 10ean herriko tren geltoki zaharrean. Guneko lanak Bergarako Piorails enpresak egin zituen, Eskoriatzako skatzaleekin elkarlanean.

Skate parkea maila guztidako erabiltzaileendako dago eginda, jarduera hori inoiz praktikatu ez dutenendako leku aproposa da.

INGURUMENA > AHT

Deba ibaiaren ura beltz zegoen, trenaren lanengatik

Deba ibaiak hilabeteak eman zituen zikin. AHTren lanak zirela-eta, Mazmelako tuneletik irtendako zikinka ibaira joaten zen eta horrek eragiten zuen ura beltz jaistea.

Udalak hilabeteak eman zituen egoera konpon zezatela exijitzen. Horren harira, sala-

tu zuen ibaira bota aurretik hauts, hondakin eta ur zikina araztegian tratatu behar bazuten ere, hori ez zela egiten.

Isuri kutsagarrien arazoa konpontzeko, joan den urriaren 11n jakin genuen behin-behinekoz eten egin zituztela Mazmelako tuneleko lanak.



Deba ibaia Eskoriatzako Santa Marina plaza ondotik pasatzen.

MIRIAN BITERI

> INDUSTRIA
Torresoroa,
Debagoineneko
Industrialdearen esku

Eskoriatzako Industrialdea SAko administrazio kontseiluak urriaren 7an aho batez onartu zuen esandako industrialdea Debagoineneko Industrialdeari saltzea.

Esandako batzarrean har-tutako erabaki horren bidez, Eskoriatzako Udala Debagoineneko Industrialdean sartzeko prozesuarekin hasi zen.


> ZERGAK
2010ean, ura %4
igotzea erabaki zuen
udalbatzak

Ordenantza fiskal gehienek ez dute igoerarik izango 2010ean. Udalbatzak horiek aho batez onartu zituen, urriaren 28ko osoko bilkuran. Ura eta zabor tasek baino ez dute aldaketarik izango; ura %4 igotzea eta zaborrari 2009ko bigarren seihilekoko tarifa aplikatzea adostu zuen udalbatzak esandako bilkuran.

*Zuhaitzak garbi Aitzorrotz zuri
negua heldu da geurera.
Gabon girua nabaritzen da
irtenez gero kalera.
Etxe denetan ez da izango
ospakizun berbera.
Poztu ordea laister zoaz ta
urte berria ikustera
ametsak edukitzera.*



Gaztainadui 15
Tel.: 943 71 51 97
ESKORIATZA



Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABAleta

Zorionak eta urte berri on!

AZAROA



"Telefonia enpresek urte asko eman dituzte probetxua ateratzen"

Juan Luis Merino > Zinegotzia
2009.11.09



"Elizateetara doazen errepeideak oso egoera kaskarrean daude"

Leire Okarantza > Zinegotzia
2009.11.13

JENDARTEA > URTEBETETZEA

Andres Agirianok 103 urte bete zituen azaroaren 30ean

Andres Agiriano eskoriatzarrak 103 urte bete zituen joan den azaroaren 30ean. Urtero moduan, Udaleko eta Olazar erretiratuen elkarteko ordezkarriak Agirianoren baserrira joan ziren egun hartan, omenalditxoa egiteko eta etxeekoink batera argazkia ateratzeko.



Andres Agiriano, azaroaren 30ean, etxeekoink batera.

ESKORIATZAKO UDALA

ARTATZA ETA BLANCO

Agirianoz gain, dagoeneko 100 urte beteak dituzten beste bi eskoriatzarraren urtebetetzea ere izan zen. Irailaren 29an, Sabina Artatzak 102 urte bete zituen; eta urriaren 7an, Rosalia Blancok 101 urte egin zituen. Haiei ere omenalditxoa egin zieten.

> TEKNOLOGIA BERRIAK Udalerriko toponimia sarean jarri zuten

Eskoriatzako toponimia sarean ikus daiteke. Aitzorrotz etnologia taldeak, baserritarren laguntzarekin, udalerriko toponimoak urtetan batu zituen eta horren guztienetan gaineko informazioa *Eskohitzta.com* webgunean jarri zuten joan den azaroan; bertan, 620 toponimo inguru ikus daitezke.

> UMEA Pirritx eta Porrotxek eskoriatzarrak zoratu zituzten

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizunaren estreinaldia izan da aurten ere: *Irrien lagunak*. Azaroaren 28an izan zen, kirolegian, eta, urtero moduan, arrakasta itzela lortu zuten. Pirritx ez zen taula gainean izan; haurdun dago eta sendagileak esan zion atseden hartzeko; bideo konferentzia parte hartu zuen.

ABENDUA



"Seme-alaben adinaren araberako jostailuak aukeratzeko dituzten zalantzak argitu dizkiegu gurasoei"

Iratxe Arrese > Tortolis ludotekako hezitailea
2009.12.04

MUSIKA > LEHIAKETA

Herriko hiru akordeoi-jotzaile izan ziren 'Arrasate Hiria'-n

Urtero moduan, musika eskola ikasleek abenduko lehen asteburuan Arrasaten izandako XVII. Arrasate Hiria akordeoi lehiaketan parte hartu zuten. Herriko hiru akordeoi-jotzailek emanaldia egin zuten, Gipuzkoako, Euskal Herriko eta nazioarteko akordeoi-jotzaile onenekin batera.

DOMINAK

Lan bikaina egin zuten. Nerea Bastardo hastapenetako B multzoan aritu zen eta urezko domina irabazi zuen egindako lanagatik. Hastapeneko A multzoan, Henar Valorreko eta Itziar Unanuek urezko eta zilarrezko dominak jaso zituzten, hurrenez hurren.



Irakaslea eta ikaslek, dominak eta diplomak eskutak dituztela.

MUSIKA ESKOLA

Soran etxea
Hotela • Jatetxea

Hamar logela zabal eta erosoa!

Menu bereziak

30 personendako aretoa

Urte berri on guztiori!

Santiago kalea, 3 - LEINTZ GATZAGA - Tel.: 943 71 53 98 - info@soranetxea.com - www.soranetxea.com

LEINTZ GATZAGA

URTEARI BEGIRATUA

2009



GOIENKARIA

> URTARRILA

Elurraren ondorioz kaleak arriskutsu

Urte berriko lehen egunetan elur askotxo egin zuen, batez ere tontorrik garaienetan. Errege egunean Gatzagako errepidea itxita egon zen eta urtarrilaren 7an ikastolako autobusa ez zen iritsi. Arlabango errepidea, osteria, behin eta berriz garbitzen jardun zuten eta automobilak arazorik barik pasatu ziren. Elurraren ostean izotza iritsi zen, eta errepideen egoerak okerrera egin zuen, kendu bako elurra izoztu egin zelako. Udala bide bazterrak garbitzen ibili zen, geratu barik. Umeak, osteria, pozik, gura beste jolas egiteko aukera izan zutelako elurrarekin.

MAIATZA > ALDUNDIA

Olano eta Uribarren diputatuak bisitan herrian

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Maiatzaren 11n egin zuen bisita Markel Olano diputatu nagusiak Gatzagara. Landa Garapenero diputatu Rafael Uribarren izan zuen lagun eta Udalak Landagipuzkoa egitasmorra aurkeztutako proiektuak ontzat eman zituz-

ten: hainbat baserritarako bide sarrerak konponzea; pilotalekua estaltzea; eta Gatzagainera ura eroatea. "Herriko arazoei erantzuteko ilusioa" ikusi zuen Olanok. Gatz museoa eta Dorletako santutegia ezagututa bukatu zuten bisita.



Markel Olano eta Rafael Uribarren gatz museoa ikusten.

TXOMIN MADINA

Gatzagako errepide biak konponzen hasi zen Aldundia

Gatzagatik pasatzen den errepideko 4. eta 6,5. kilometroen arteko zatia konpondu zuten eta maiatzaren 6a eta 15a bitartean bide bakarra egin zabalik.

Bestalde, Arlabanen, GI-627 errepideko 19. eta 27. kilometro puntuen artean zorua konpondu zuten.

Gipuzkoako Ehiza Federazioak hartu zuen berriro ehiza-barrutia

Ehiza-barrutiaren ardura emateko –Gatzagakoak ez diren ehiztariendako postuak– lehiaketa deitu zuen Udalak abuztuaren 20rako, eta Gipuzkoako Ehiza Federazioari eman zion berriro, lau urterako. Postuen zozketak herrian egiteko eskuatu zion Udalak, baina ez zuten halakorik lortu.

> OTSAILA Ia 414.000 euroko aurrekontua onartu zuten 2009rako

Otsailaren 26an egindako osoko bilkuruan onartu zuen udalbatzak 413.984 euroko udal aurrekontua. Horietatik 33.000 euro bakarrik izango zirela inbertsioak egiteko jakinarazi zuten; 109.132 euro pertsonal gastuak ordaintzeko eta 223.380 euro ohiko gas-tuendako.

> APIRILA Hainbat baserritara doazen bide sarreren egokitzapen lanak

Hainbat baserritara doazen bide sarrerak konpondu eta egokitzen ere hasi ziren apirilaren 20an Landagipuzkoa egitasmoari esker. Lehenengo lana Gatzagaingo bidegurutzearkin –44.000 euro– hasi zituzten lehen faseko lanok, eta teilitua konpontzea erabaki zuten. Zortzi asteko lana izan arren, atzeratu egin zen materiala ailegatzen ez zelako.

> MARTXOA Transformadore berria jarri zuten martxan

Martxoaren 23an jarri zuten martxan Iberdrolako langileek transformadore berria. Industria Sailak derrigortu egin zuen Udala transformadorea aldatzen, argindar banatzailea zelako Leintzargi SL enpresaren bidez. Lanok egiteko 122.000 euro gorde zituen Udalak iazko aurrekontuan.

> APIRILA Santa Kolunba ermitako teilitua konpontzen hasita

Apirilaren 27an hasi zituzten Santa Kolunbako lanak Eskoriatzako Razkin enpresako langileek. Estatu Fondotik emandako dirulaguntzarekin –44.000 euro– hasi zituzten lehen faseko lanok, eta teilitua konpontzea erabaki zuten. Zortzi asteko lana izan arren, atzeratu egin zen materiala ailegatzen ez zelako.



M.A.

> AZAROA

Txerri kontuak San Milixan ferian

Azaroaren 15ean ospatu zen XVII. eskulangintza feria, eta, urtero iza-ten diren artisauen lanekin batera, txerri hilketaren gaineko kontuak izan ziren ikusgai. Basatxerri kalitate izeneko bi txerri ekarri zituzten eta txorizoak eta txitxikiak zelan gertatzen zituzten sasoi baten erakutsi zuten hainbat herritarrek; baita odoloste eta txitxikiak saldu ere.

AMETS
BENGOA
BRANKA
EDERRA
EXPRESS
IAMAI
ITZALA
MONTE
OKORETEGI
RUMBA
TXOKO

Zorionak eta
urte berri on!